

EGUNEROKO HITZEN LANTALDEA: PROPOSAMENA

Donostia, 2001-I-26

Miren Azkarate

1. Osaera

Hiztegi Batuko bigarren itzulia osatzeko zein iturritara jo behar genuen aztertzen ari ginela, OEH eta EEBS corpusen ekarpenaz gain, beste lau lantalde sortzea ikusi genuen beharrezko: administrazio arloko oinarriko hitzak bilduko zituena, irakas mundukoa, komunikabideetakoa eta, azkenik, egunero erabiltzen ditugun hitzak izanik euskal ordain jator bateraturik ez dutenez arduratuko litzatekeena. Izan ere, 2000ko ekainean, Bilbon egin genuen Jardunaldi edo Gogoetan, “ordenador portátil” edo “teléfono móvil” nola esan behar ote ditugun, zenbat proposamen desberdin dabiltzan hor zehar... izan genuen hizpide. Horretaz gain, geuk ere behin baino gehiagotan aipatu dugu oraindik ez dakigula nola esan beharko genukeen “biberón”, “chupete” edo “babero” euskaraz. Eta aurreko hiztegi lantaldeak antolatu izanak ez du esan nahi horrelako hitzen proposamena haiek egingo dutenik. Gainera, arratsalde hartan Euskaltzaindiaren egoitzara hurbildu zirenek beren lankidetzara ere eskaini zuten. Hura gogoan izanik, hizpidea sortu zuen Joxe Mari Berasategi-rengana jo nuen lehenik. Hauek dira, beraz, lantaldea osatzeko proposatzen ditudanak (aldez aurretik haiekin hitz egin eta onartu baitute lantaldean egotea):

Joxe Mari Berasategi, Arabako Foru Aldundian ari dena,

Patxi Petirena, *Euskaldunon Egunkariko*,

Gotzon Egia, Gipuzkoako Foru Aldundian jarduteaz gain, EIZIEkoa ere badena,

Iñaki Zubizarreta, lehenik irratian eta ondoren bikoizketa lanean jardundakoa, eta gaur Irusoinen dabilena,

Antton Gurrutxaga, Elhuyar hiztegiaren arduradun nagusia,

Guztiok dute elkarrekin jarduteko ohitura, eta oso begi onez hartu dute taldea lagun horiek osatzea.

2. Lanerako prozedura

Esan bezala, gaur euskaraz bizitzeko ezinbestekotzat dituzten hitzak bildu eta, Hiztegi Batuko bigarren itzuliko proposamenetan ordainik ikusi ez badute, euskaraz nola esan daitekeen adostu eta proposatzea eskatuko zaie lantaldeko kideei. Horretarako, banaketa-zerrenda berezia antolatuko da Jagonet-en, gainerako lantaldeekin egingo den bezalaxe. Hortik aurrera, beren arteko eztabaida izango da, zein hitz sartu behar duten zerrendan eta zein ordain emango lioketen. Uste dut udazkenerako zerrenda egokia izan dezakegula.

Hiztegi Batuko irizpideak ezagutzen dituzten arren, gogoraziko zaie zer hartu behar duten kontuan hitz bakoitza eztabaidatzean:

a) Proposatzen duten hitza erabili duten, eta hala balitz, guztiek erabili duten ala batzuek bakarrik. Gerta daiteke haiek zuzenean erabili ez, baina ingurukoren batek erabiltzen duela jakitea ere. Hori guztia jaso beharko lukete. Eta forma bat baino gehiago badabilta lehian, Hiztegi Batuko bigarren itzuliko irizpideen argitan aztertu beharko dituzte. Ahal bada, proposamen bateratua egin; eta, bestela, lehiakideak aurkeztu, bakoitzari erabilera-txostena erantsiaz.

b) Komeni da, halaber, esatea proposatzen d(ir)en hitza(k) euskal ondarekoa(k) d(ir)en ala ez. Euskal ondarekoa(k) bad(ir)a, OEHN egongo d(ir)a ziu-rrenik, edo ahozko erabilerakoa bad(ir)a, azpieuskalkiren batekoa(k) izango d(ir)a.

c) Gerta daiteke euskaraz orain arte hitzik ez, eta hitz berria sortzeko proposamena egitea. Argi eta garbi adierazi beharko lukete halakoetan (eta hitza sortzeko oro har elkartetara edo eratorpenera jo). Bestalde, komenigarri izaten da inguruko hiruzpalau hizkuntzatan nola esaten den kontuan hartzea, gaztelaniaren ereduak bakarrik ez izateko.

d) Maileguren bat hartzea proposatzen denean, oro har Hiztegi Batuko bigarren itzulirako onartu genituen irizpideen arabera jokatu beharko dute:

- maileguaren nazioartekotasuna neurtu
- oso hedatua ez bada, gutxieneko baldintza behintzat betetzen duen ala ez esan
- Iparraldean eta Hegoaldean forma desberdinak erabiltzen badituzte, guztientzat balio dezakeen forma proposatzen ahalegindu. Eta lortzen ez bada, alde bakoitzeko mailegua aurkeztu, izan duen erabileraren berri ematen duen txostena erantsiaz.

e) Beti ere argi izan beharko dute lantaldekoei dagokiela proposamena egitea; kontua ez dela erdal terminoen zerrenda osatu, eta Euskaltzaindiari galdetzea euskaraz nola esan behar diren.

f) Lantalde horretatik datozen proposamenak Euskara Batuko batzordeak eta euskaltzain osoek aztertu ondoren, argibide gehiagoren beharra ikusiko balitz, lantaldeari eskatuko litzaioke informazioa osatzea (nahiz honek ez duen baztertzeko Hiztegi Batuko lantaldeari ere argibiderik eman dezakeen galde-tzea).

Azkenik, lana oro har bakoitzak bere ordenagailutik egin badezake ere, bileraren bat egingo beharko balute, edo bestelako gasturik sortuko balitzaie, Euskaltzaindiak bere gain hartuko luke gastu horiek ordaintzea.